rrak jartzeko modua, telekomunikazio antolaketari buruzko arautegiari jarraituta zehaztuko dira.

2.– Kultura sailburuak izango du arau-hauste horiengatik zigorrak jartzeko ahalmena eta baimena kentzea ere ekar dezakete oso arau-hauste larriak izanez gero, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak hartuko du erabakia.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Lehena.– Eusko Jaurlaritzaren Dekretu honen bidez, frekuentzia modulatudun uhin metrikoetako irratizabalkunde zerbitzua eskuratzeko udalbatzei emandako baimenei dagokielarik bertan zehaztu gabe geratu diren gaietarako, Telekomunikazio Antolaketarako arautegi orokorra eta irratizabalkunderako udal emisoreak antolatu eta kontrolatzeko oinarrizko erabakiak hartuko dira aintzakotzat.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.– Kultura sailburuari, honako Dekretu hau bideratu eta betearazi ahal izateko, behar den beste erabaki hartu eta behar adina akordio onartzeko ahalmena ematen zaio.

Bigarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko martxoak 22.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Kultura sailburua,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

métricas con modulación de frecuencias, así como la aplicación de sanciones se regirá por lo que dispone la legislación aplicable sobre ordenación de las telecomunicaciones.

2.– La competencia sancionadora por tales infracciones corresponderá al Consejero de Cultura, si bien cuando se trate de infracciones muy graves que comporten la revocación de la concesión se acordará por el Consejo del Gobierno Vasco.

DISPOSICION ADICIONAL

Primera.– En todas las cuestiones referentes a las concesiones de emisoras de radiodifusión sonora en ondas métricas con modulación de frecuencia otorgadas a las corporaciones locales al amparo del presente Decreto por el Gobierno Vasco no contempladas en éste, será de aplicación la normativa general sobre Ordenación de las Telecomunicaciones y las disposiciones básicas de organización y control de las emisoras municipales de radiodifusión sonora.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se autoriza al Consejero de Cultura para dictar cuantas disposiciones y adoptar los acuerdos sean necesarios para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

Segunda.– Este Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 22 de marzo de 1994.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

EL Consejero de Cultura,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

1222

132/1994 DEKRETUA, martxoaren 15ekoa, Lurraren Erregimen eta Hiri Antolaketari buruzko Legearen bateratutako testua onartzen deneko Erregeren ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzazko Dekretua Euskal Autonomi Elkartean aplikatzeari buruzkoa.

Espainiako 1978ko Konstituzioko 148.1.3 atala; Euskal Herriko Autonomi Estatutuko 10.31 atala; Lurralde Antolaketa eta Hirigintza alorretako gaiak Estatuak Euskal Autonomi Elkarteari emate-dekretuak; Euskal Autonomi Elkarte Osorako Instituzioen eta Lurralde Historikoetako Foru Organuen arteko harremanei buruzko 27/1983 Legeko 6. eta 7 c) eta 5. ata-

DEPARTAMENTO DE URBANISMO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

1222

DECRETO 132/1994, de 15 de marzo, sobre aplicación en la Comunidad Autónoma del País Vasco del Real Decreto Legislativo 1/1992, de 26 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la ley sobre Regimen del Suelo y Ordenación Urbana.

El peculiar sistema de articulación en el ejercicio de las competencias administrativas dentro de la Comunidad Autónoma que surge de la interpretación conjunta y sistemática del artículo 148.1.3.º de la Constitución Española de 1978, artículo 10.31 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, Decretos de traspasos del Estado a la Comunidad Autónoma en materia de Orde-

lak; Euskal Autonomi Elkarte Osorako Instituzioen hirigintza-zerbitzuak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Lurralde Historikoei emateari buruzko 1985. urteko 35, 44 eta 54 Dekretuak, bateratuki eta sistematikoki interpretatzeak, sistema berezia sortu du Euskal Autonomi Elkartearen eskuduntza administratiboak artikulatzerakoan eta, bereziki, Lurraldearen Antolaketari eta Hirigintzari dagozkienetan. Sistema horretan jasotzen denaren arabera, Erregeren 1/1992 Legegintzazko Dekretua garatzeko eskuduntza, Euskal Autonomi Elkarte Osorako Instituzioei dagokie.

8/1990 Legea Erregeren 1/1992 Legegintzazko Dekretuan bateratzeaz, zera nahi da lortzea beste helburu batzurekin batera, hau da, urbanizazio eta eraikuntza arloei buruz finkatuta dauden epeak norbanakoek ez betetzea gerta dadin kasuetarako, lurraren ondare publikoa neurri batetan gehitzea ondasun higiezinen merkatua arautu ahal izateko edo babes ofizialpeko etxebizitzei lur urbanizagarria adskribatu ahal izateko, behar bezalako instrumentuez Administrazioa hornitzea.

Lurraren Erregimen eta Hiri Antolaketari buruzko Legearen bateratutako testua onartzen deneko Erregeren ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzazko Dekretuko Gehigarrizko Xedapenetatik Lehenengoan, bi erregimen ezberdin finkatzen dira dekretu horren aplikaziorako. Hori horrela izanik, banaketa-areen mugaketari buruzko, probetxamendua kalkulatzeari buruzko eta, 27.1 eta 2 atalean xedatzen denaren arabera, norbanakoak bereganatu dezakeen probetxamenduaren definizioari buruzko arauak, honako kasu hauetan aplikatu ahal izango dira: a) 50.000 biztanletik gora dituzten udalerrietan, b) probintziako hiriburuetan, c) hiriburuen inguruetan sartzen diren eta dagokion Autonomi Elkarteak mugatzen dituen udalerrietan, d) 25.000tik 50.000ra biztanle dituzten udalerrietan, Autonomi Elkarteek, zirkunstantziak kontutan hartuz, probintziako hiriburuak ez diren udalerriren bat bazter uztea gerta dadinean izan ezik eta e) 25.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriak izan daitezenean, Autonomi Elkarteek, edo udal bakoitzak hala eskatuta, hori erabaki dezatenean.

25.000 biztanletik gora dituzten udalerriek, Erregeren 1/1992 Legegintzazko Dekretua oso-osoan aplikatzeko hainbateko biliabide pertsonal eta teknikoak dituzte eta, ondorioz, udalerri horietan Erregeren Dekretu hori oso-osoan aplikatzeari eutsi zaio dekretu honetan ere.

Erregeren Legegintzazko Dekretua, oso-osoan aplikatuko zaie ondoren aipatzen diren udalerriei ere: Bilbao eta Donostia-San Sebastiángo hiriburuen inguruetan dauden udalerriei eta bai, lurraldea antolatzeko instrumentuetan jasotzen diren prebisioen arabera, eragiketa bereziak garatu behar diren udalerriei ere, Erregeren Dekretua oso-osoan aplikatuz ekin behar baldin bazaie eragiketa horiei. Hala ere, hiriburuen inguruetan sartuta dauden udalerrien kasuan eta 25.000 biztanle ez baldin badituzte, udalek, Erregeren 1/1992

nación del Territorio y Urbanismo, artículos 6 y 7, c) 5 de la Ley 27/1983, de relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos, y los Decretos 35, 44 y 54 de 1985, de traspaso de servicios de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma a los Territorios Históricos de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa en materia de Urbanismo, ha dado lugar en lo que se refiere a la Ordenación del Territorio y al Urbanismo a un esquema según el cual la competencia para el desarrollo del Real Decreto Legislativo 1/1992, se residencia en las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma.

Con la Ley 8/1990, y su posterior refundición en el Real Decreto Legislativo 1/1992, se pretende, entre otros objetivos, dotar a la Administración de los instrumentos necesarios para hacer frente al incumplimiento por los particulares de los plazos señalados para la ejecución de las tareas de urbanización y edificación; para incrementar los patrimonios públicos de suelo en medida suficiente para incidir en la regulación del mercado inmobiliario o para adscribir superficies de suelo urbanizable a la construcción de viviendas de protección oficial.

La Disposición Adicional Primera del Real Decreto Legislativo 1/1992, de 26 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana, dispone dos regímenes diferenciados para su aplicación. En su virtud, las normas que el mismo contempla relativas a delimitación de áreas de reparto, cálculo del aprovechamiento tipo y definición del aprovechamiento susceptible de apropiación de conformidad con el artículo 27.1 y 2 serán de aplicación en los siguientes supuestos: a) municipios superiores a 50.000 habitantes; b) capitales de provincia; c) municipios comprendidos en los entornos metropolitanos delimitados por la Comunidad Autónoma correspondiente; d) municipios comprendidos entre 25.000 y 50.000 habitantes, salvo que las Comunidades Autónomas, cuando las circunstancias lo aconsejen, excluyan a municipios que no sean capitales de provincia y e) municipios de población inferior a 25.000 habitantes si las Comunidades Autónomas por sí o a instancia de los respectivos Ayuntamientos, así lo disponen.

Los municipios con población superior a 25.000 habitantes cuentan con Administraciones con medios personales y técnicos suficientes para poder aplicar el Real Decreto Legislativo 1/1992, en su totalidad, por lo que se ha considerado conveniente mantener, a través del presente Decreto, la aplicación íntegra de aquél a tales municipios.

También se prevé, a través de este Decreto, la aplicación íntegra del Real Decreto Legislativo de referencia para aquellos municipios incluídos en los entornos metropolitanos de Bilbao y de Donostia-San Sebastián, así como para aquellos municipios en los que, de conformidad con las previsiones contenidas en los instrumentos de ordenación territorial, se vayan a desarrollar operaciones específicas que proceda sean abordadas desde una aplicación íntegra de aquél. No obstante, los municipios incluidos en los entornos metropolitanos y

Dekretua partzialki aplika dakiela eskatu ahal izango diote, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari.

Azkenengo zentsu edo padroietan jasotzen den eskubidedun biztanlegoa kontutan hartuz, 7.000tik 25.000ra arteko biztanlegoa duten udalerrien kasuetan, Udalek erabaki behar dute Erregeren Legegintzazko Dekretua oso-osoan edo partzialki aplikatu behar den ala ez. Horretarako, formula bat finkatzen da dekretu honetan: Udalbatzek osoko bilkuran hartu behar dutela Erregeren 1/1992 Legegintzazko Dekretua osoan edo partzialki aplika dakienaren akordioa.

7.000 biztanle baino gutxiago izan, bereiztu gabekoak edo hiriburuen ingurutik kanpo kokatuta dauden udalerrien kasuetan, komenigarria da, Erregeren Legegintzazko Dekretua partzialki aplikatzea, Plan Orokorrak eta hori kudeatzeak zailtasun igariegi izango baitlituzkete.

Bestalde, Legeari buruzko Bateratutako Testuko Aldibaterako Xedapenetatik Lehenengoko bigarren zenbakiko d) letran aipatzen diren udalerrietako hirilurrean norbereganagarria izan daitekeen probetxamenduaren kalkulua egiterakoan, hainbat zalantza sortu direnez, komenigarritzat jotzen da, 8/1990 Legean jaso eta Erregeren 1/1992 Legegintzazko Dekretuan sendesten den irizpidea onartzea, hau da, udalerri horietako hiri-lurretan norbereganatu daitekeen probetxamendua, probetxamenduaren %85ekoa izan dadila.

Horiek horrela, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren proposamenez, Estatuaren Kontseiluaren akordioz eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1994ko martxoaren 15ean egin zuen bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. atala.– Lurraren Erregimen eta Hiri Antolaketari buruzko Legearen bateratutako testua onartzen deneko Erregeren ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzazko Dekretua, oso-osoan aplikagaria da ondoren aipatzen diren udalerri hauetan:

a) Bilbaon, Donostia-San Sebastiánen eta Vitoria-Gasteizen.

b) 25.000 biztanletik gora dituzten udalerrietan.

c) Bilbao Metropolitanoak eta Donostia-San Sebastiángo Area Funtzionalak hartzen dituzten udalerrietan.

d) Lurraldea Antolatzeko edo Lurralde Plan Partzialen Artezbideetan proposatzen diren estrategien arabera, Legea oso-osoan aplikatuz gauzatu behar diren egintza bereziak garatu behar direla aurrikusita dagoeneko udalerrietan. Horretarako, espreski aipatu beharko da instrumentu horietan erabaki hau eta, horrek, dekretu hau egokitu beharra ekarriko du bestegabe.

2. atala.– Honako hauek dira Bilbao Metropolitanoak eta Donostia-San Sebastiángo Area Funtzionalak hartzen dituzten udalerriak:

cuya población no alcance los 25.000 habitantes podrán promover ante el Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente la aplicación parcial del Real Decreto 1/1992.

En los municipios comprendidos entre 7.000 y 25.000 habitantes, según la población de derecho que conste en los censos o padrones últimos, los propios Ayuntamientos deben decidir la conveniencia de la aplicación íntegra o parcial del Real Decreto Legislativo de constante referencia, y por ello la fórmula que se prevé a través del presente Decreto es la de que estos Ayuntamientos adopten acuerdo plenario disponiendo la plena aplicación del Real Decreto Legislativo 1/1992.

Para aquellos municipios con población inferior a 7.000 habitantes, no singularizados o ubicados fuera de los entornos metropolitanos, se observa la conveniencia, ante la complejidad que supone el Plan General y su gestión, de que el Real Decreto Legislativo sea de aplicación parcial.

Por otro lado, ante las dudas surgidas respecto al cálculo del aprovechamiento susceptible de apropiación en el suelo urbano de los municipios a los que se refiere la letra d) del número dos de la Disposición Transitoria Primera del Texto Refundido de la Ley, se considera conveniente confirmar el criterio contemplado en la Ley 8/1990, y ratificado por el Real Decreto Legislativo 1/1992, de que el aprovechamiento susceptible de apropiación en el suelo urbano de dichos municipios es el 85% del aprovechamiento correspondiente.

En su virtud, a propuesta del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, de acuerdo con el Consejo de Estado y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 15 de marzo de 1994.

DISPONGO:

Artículo 1.– Es de aplicación íntegra el Real Decreto Legislativo 1/1992, de 26 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley sobre el Régimen del Suelo y Ordenación Urbana, en los siguientes municipios:

a) Bilbao, Donostia-San Sebastián y Vitoria-Gasteiz.

b) Municipios de más de 25.000 habitantes.

c) Municipios comprendidos en el Bilbao Metropolitano y en el Area Funcional de Donostia-San Sebastián.

d) Municipios en los que según las estrategias propuestas por las Directrices de Ordenación Territorial o Planes Territoriales Parciales se prevea que se desarrollen operaciones específicas que proceda sean abordadas desde una aplicación íntegra de la Ley. A tal efecto, los citados instrumentos señalarán expresamente esta determinación y su aprobación conllevará la adecuación del presente Decreto.

Artículo 2.– Los municipios comprendidos en el Bilbao Metropolitano y en el Area Funcional de Donostia-San Sebastián son los siguientes:

a) Bilbao Metropolitanoa

– Abanto-Zierbena
– Alonsotegi
– Etxebarriko San Esteban Elizatea
– Arrankudiaga
– Arrigorriaga
– Barakaldo
– Barrika
– Basauri
– Berango
– Bilbao
– Derio
– Erandio
– Galdakao
– Getxo
– Gorliz
– Larrabetzu
– Leioa
– Lemoiz
– Lezama
– Loiu
– Muskiz
– Ortuella
– Plentzia
– Portugalete
– Santurtzi
– Sestao
– Sondika
– Sopelana
– Ugao-Miraballes
– Urduliz
– Valle de Tragapa-Trapagaran
– Zamudio
– Zaratamo
– Zeberio
– Zierbena

b) Donostia-San Sebastiángo Area Funtzionala

– Andoain
– Astigarraga
– Donostia-San Sebastián
– Hernani
– Hondarribia
– Irun
– Lasarte-Oria
– Lezo
– Orio
– Oiartzun
– Pasaia
– Rentería
– Urnieta
– Usurbil

3. atala.– Azkenengo udal zentsu edo padroian sartuta dauden eskubidedun hiritarrak kontutan hartuz, bigarren atalean aipatu ez eta 7.000tik 25.000ra arteko biztanleria duten udalerrietan, oso-osoan aplikatu ahal izango da Lurraren Erregimen eta Hiri Antolaketari buruzko Legearen bateratutako testua onartzen deneko Erregeren ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzazko Dekretua. Udalbatzak egindako osoko bilkuran onartu beharko da hori. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta dagokion Lurralde Historikokoan argitaratuko da akordioa. Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebi-

a) Bilbao Metropolitano

– Abanto-Zierbena
– Alonsotegi
– Anteiglesia de San Esteban de Etxebarri
– Arrankudiaga
– Arrigorriaga
– Barakaldo
– Barrika
– Basauri
– Berango
– Bilbao
– Derio
– Erandio
– Galdakao
– Getxo
– Gorliz
– Larrabetzu
– Leioa
– Lemoiz
– Lezama
– Loiu
– Muskiz
– Ortuella
– Plentzia
– Portugalete
– Santurtzi
– Sestao
– Sondika
– Sopelana
– Ugao-Miraballes
– Urduliz
– Valle de Tragapa-Trapagaran
– Zamudio
– Zaratamo
– Zeberio
– Zierbena

b) Area Funcional de Donostia-San Sebastián

– Andoain
– Astigarraga
– Donostia-San Sebastián
– Hernani
– Hondarribia
– Irun
– Lasarte-Oria
– Lezo
– Orio
– Oiartzun
– Pasaia
– Rentería
– Urnieta
– Usurbil

Artículo 3.– En los municipios comprendidos entre 7.000 y 25.000 habitantes, según la población de derecho que conste en el último censo o padrón municipal, no incluidos en el artículo segundo, será de aplicación íntegra el Real Decreto Legislativo 1/1992, de 26 de Junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley sobre el Régimen del Suelo y Ordenación Urbana, siempre que así se disponga en acuerdo plenario adoptado por el Ayuntamiento correspondiente. Este acuerdo deberá ser publicado en los Boletines Oficiales del País Vasco y del Territorio Histórico correspondiente,

zitza eta Ingurugiro Sailera eta dagokion Foru Aldundiko Hirigintza Departamendura ere bidali beharko da.

4. atala.– 25.000 biztanle baino gutxiago izan eta dekretu honetako bigarren atalean sartuta dauden udalek eskatu ahal izango diote Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari, Errege-Dekretu hori oso-osoan aplikatzetik kanpo geldi daitezela. Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuak, eskabidea aurkeztu eta bi hilabeteko epearen barruan emango dio ebazpena eskabideari, horretan agintea duen foru-organuaren iritzia entzun ondoren.

Epealdi hori igaro eta gaiari buruzko erabakirik eman ez baldin bada, eskabideari onarpena eman zaiola ulertuko da.

5. atala.– Euskal Autonomi Elkarteko udalerri guztietako hiri lurretan honako hau izango da, lur baten titularrak, legez finkatuta dauden eginbeharrak bete ondoren, bereganatu dezakeen probetxamendua:

a) Erregeren ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzazko Dekretua oso-osoan aplika daitekeen udalerrietan, lurra kokatuta dagoeneko banaketa-areako probetxamenduaren %85a udalerri horren azalerari aplikatzeak eman dezan emaitza. Dekretu horretako xedapenetan finkatzen denari udalerriak egokitu arte, exekuzio-unitateko batazbesteko probetxamenduaren %85a udalerri horren azalerari aplikatzeak eman dezan emaitza izango da probetxamendua. Erregeren ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzazko Dekretuko Xedapen Gehigarrietatik Bigarrenean agintzen denaren arabera kalkulatuko da azalera hori.

b) Erregeren ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzazko Dekretua oso-osoan aplikagarria izan ez dadineko udalerrietan, exekuzio-unitateko batazbesteko probetxamenduaren %85a udalerri horren azalerari aplikatzeak eman dezan emaitza. Erregeren ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzazko Dekretuko Xedapen Gehigarrietatik Bigarrenean agintzen denaren arabera kalkulatuko da azalera hori.

2.– Hiri lur horietan, bai aipatu den Erregeren Legegintzazko Dekretua oso-osoan aplikagarria izan eta dekretu horri agokitu gabe dauden udalerrietan eta bai partzialki aplikagarria izan dadin kasuan ere, lur baten titularrak bereganatu dezakeen probetxamendua, planeamenduak hartzen duen probetxamenduaren %85a izango da, lur horiek exekuzio-unitatean sartuta ez egotea gerta dadinean.

ALDIBATERAKO LEHENENGO XEDAPENA

Dekretu honetan eta Erregeren ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzazko Dekretuan xedatzen denaren indarrez Erregeren Dekretu horretan agintzen dena oso-osoan aplikagarria zaien udalerriek, Erregeren Dekretu horretan xedatutakoari egokitu beharko diote indarrean duten planeamendua lau urteko epearen barruan. Dekretu hau indarrean jarri dadin egunetik hasita kontatuko da epealdia.

debiéndose dar traslado del mismo al Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco y al Departamento competente en materia de Urbanismo de la Diputación Foral correspondiente.

Artículo 4.– Aquellos municipios con población inferior a 25.000 habitantes que se hallen incluídos en el artículo segundo de este Decreto, podrán solicitar, previa justificación razonada, la exclusión del régimen de aplicación íntegra ante el Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente. Oído el órgano foral competente, el Consejero de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente resolverá en el plazo de dos meses desde la presentación de la solicitud.

Transcurrido este plazo sin haber dictado resolución, se entenderá estimada la solicitud.

Artículo 5.– En el suelo urbano de todos los municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el aprovechamiento susceptible de apropiación por el titular de un terreno mediante el cumplimiento de los deberes legalmente establecidos es el siguiente:

a) En los municipios que sea de aplicación íntegra el Real Decreto Legislativo 1/1992, de 26 de junio, el resultado de referir a su superficie el 85% del aprovechamiento tipo del área de reparto en la que se encuentre. Hasta que no sean adaptados a sus disposiciones, dicho aprovechamiento será el resultado de referir a su superficie el 85% del aprovechamiento medio de la unidad de ejecución, calculado de acuerdo con lo dispuesto en la Disposición Adicional Segunda del Real Decreto Legislativo 1/1992, de 26 de Junio.

b) En los municipios que no sea de aplicación íntegra el Real Decreto Legislativo 1/1992, de 26 de junio, el resultado de referir a su superficie el 85% del aprovechamiento medio de la unidad de ejecución, calculado de acuerdo con lo dispuesto en la Disposición Adicional Segunda del Real Decreto Legislativo 1/1992, de 26 de junio.

2.– En dicho suelo urbano, tanto en el caso de municipios en los que sea de aplicación plena el Real Decreto Legislativo citado y no adaptados al mismo, como en los que sea de aplicación parcial, cuando los terrenos no se encuentren incluídos en unidad de ejecución, el aprovechamiento susceptible de apropiación por el titular de un terreno es el 85% del aprovechamiento permitido por el planeamiento.

DISPOSICION TRANSITORIA PRIMERA

Los Municipios a los que sea de aplicación íntegra, en virtud del presente Decreto, el Real Decreto Legislativo 1/1992, de 26 de junio, deberán adaptar su planeamiento vigente a lo dispuesto en el citado Real Decreto en el plazo de cuatro años a contar desde la entrada en vigor de este Decreto.

ALDIBATERAKO BIGARREN XEDAPENA

Udalek beren planeamendu orokorraren lehenengo egokiketa egin ez dezaten bitartean, dekretu honetako lehenengo ataletik laugarren atalera arte aipatzen diren erabateko edo zatizko aplikazioei buruzko xedapenak, ez dira aplikagarriak izango Lurraren 1976ko Legearen Bateratutako Testuari egokitutako planeamendu orokorrik izan ez dezaten udalerrietan eta, ondorioz, Aldibaterako Lehenengo Xedapenean finkatzen den egokiketa egin beharrik ez dute izango.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko martxoak 15.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburua,
JOSE ANTONIO MATURANA PLAZA.

DISPOSICION TRANSITORIA SEGUNDA

Hasta tanto se produzca la primera adaptación de su planeamiento general respectivo, las disposiciones sobre aplicación íntegra o parcial contenidas en los artículos primero al cuarto del presente Decreto y, en consecuencia, el deber de adaptación establecido en la Disposición Transitoria Primera, no serán de aplicación a los municipios que no cuenten con planeamiento general adaptado al Texto Refundido de la Ley del Suelo de 1976.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 15 de marzo de 1994.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente,
JOSE ANTONIO MATURANA PLAZA.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

1223

1/1994 FORUA ARAUA, martxoaren 2koa, Gipuzkoako herrialde historikoaren 1994rako aurrekontua onartzeari buruzkoa.

Gipuzkoako Diputatu Nagusia

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu eta nik promulgatu eta agintzen dudala Gipuzkoako herrialde historikoaren 1994rako aurrekontua onartzeari buruzko Foru Araua argitara dadin, aplikagarria zaien hiritar, partikular eta agintari guztiek bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 1994ko martxoak 2.– Eli Galdós Zubia, diputatu nagusiak.

ATARIKOA

Foru Sektore Publikoa osatzen duten Entitateetako bakoitzari dagozkionak dira Gipuzkoako Herrialde Historikoko 1994erako Aurrekontu Orokorrak osatzen dituztenak, horien barnean sartzen dira Foru Aldundiaren Aurrekontua, «Uliazpi Fundazioa» Foru Organismo Autonomoaren Aurrekontua eta, berrikuntza gisa, «Urnieta Lantzen, S.A.» eta «Sociedad Foral de Servicios Informáticos, S.A.» Foru Elkarte Publikoak. Era berean, Batzarre Nagusien Aurrekontua ere sartzen da.

Aipatu Foru Elkarte Publikoak 1993an sortzearen

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

1223

NORMA FORAL 1/1994, de 2 de marzo , por la que se aprueba el Presupuesto del Territorio Histórico de Gipúzkoa para 1994.

El Diputado General de Gipúzkoa.

Hago saber que las Juntas Generales de Gipúzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente Norma Foral por la que se aprueba el Presupuesto del Territorio Histórico de Gipúzkoa para 1994, a los efectos de que todos los ciudadanos, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

Donostia-San Sebastián, a 2 de marzo de 1994.– El Diputado General, Eli Galdós Zubia.

PREAMBULO

Los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para 1994 están integrados por los correspondientes a cada una de las Entidades que componen el Sector Público Foral, comprendiendo el Presupuesto de la Diputación Foral, el Presupuesto del Organismo Autónomo Foral «Fundación Uliazpi» y, como novedad, el de las Sociedades Públicas Forales «Urnieta Lantzen, S.A.» y «Sociedad Foral de Servicios Informáticos, S.A.». Asimismo, se incorpora el Presupuesto de las Juntas Generales.

Como consecuencia de la creación en 1993 de las